

LEZO HERRIAREN SORRERA ERREALITEA ALA ZIENTZIA-FIKZIOA

Betidanik pentsatu du Lezo herriaren sorreraz kontatzen zitzaiguna errealitatea zela, egia bene-benetakoa. Gillermo Lazongo eta inguruko kontu horiek alegia. Liburu guztietan, artikulu guztietan gauza bera errepikatzen baitzitzaigun. Gaztelako Alfontso VIII.ak 1203. urtean, Hondarribiko herriari emandako hiri-agirian honako aipamen egiten da:

“Item dono vovis Guillelmun de Lazon et socios suos, ut sint vestri vicina”. Beti pentsatu izan dugu Lazongo Gillermori jabetasunez ematen zitzaiona Lezo herria izan zela. Baten batek, (agian Leandro Silvan-ek) teoria hau plazaratu zuen, eta beste guztiok, eta neuk barne, urratutako bideari itsu-mitsuan jarraitu diogu. Lazon eta Lezo oso antzekoak direnez, aipaturiko teoria aski sinesgarria egin baitzaigu denoi.



Haxe da aipaturiko artikulua barruan eta ilustrazio grafiko gisa azaltzen den argazki adierazgarria. Bertan Irun eta uranzu zaharrak azaltzen dira. Serapio Mujikaren ustez, Uranzu, edo garai bateko Lazon, izango litzateke Gillermo Lazongori emandako lekua.

Gillermo Lazonen balizko gaskoitasuna, gaskoiek lintzurak idortzeko zerabilkiten lezoietako sistemak Lezo herri-izenarekin duen idurizko senidetasuna, eta beste halakoak, beranduago etorriko dira. Lezon, bada gainera, Guillermo Lazonen izena daraman kalea, eta gaur lezoar guztion iritziz Guillermo Lazon izan zen nolabait, herria sortu egin zuena. Eta neu ere, oraintxe arte, uste berekoa izan nauzue. Baina ustea erdi ustela dio atsotitz zaharrak, eta arrazoi osoz gainera.

Kasualitateak ekarri zuen nire eskuetara irun eta Hondarribirako argitaratzen den *“vivir la bahía”* izeneko aldizkariaren 26. zenbakia. Zenbaki hau 1988ko urriaren 16an dataturik dago eta bere 4 orrialdean eta *Irun Medieval* izenburupean honako artikulutxoak irakur daiteke:

“Arrancamos una vez más de la Carta-Puebla que Alfonso VIII de Castilla concede en 1203 a Hondarribia. En ella el monarca señala los límites geográficos del término municipal de la Villa que funda y le agrega tres entidades locales menores: Irún Lazón y Asturiaga”... el terminum de Irun, cum omnibus inde habitantibus...” “Item dono vovis Guillelmo de Lazon et socios suos, ut sint vestri vicini”.

Al principio se identificó por una similitud nominal Lazon con Lezo, pero Don Serapio Múgica habla de los “los terrenos designados con el nombre de lezones o juncales” por lo que el término bien pudiera hacer referencia a la ría del Bidasoa más próxima a Fuenterrabía en donde podía vivir en 1203 Guillermo con sus socios. Luis de Urantzú identifica sin embargo la palabra lezón con la parte alta de la defensa o talud que impide el agua a los juncales o tierras bajas ganadas al río, siendo ésta una palabra de uso secular en la ría del Bidasoa.

Parece lógico así suponer que el topónimo con el que designa la Carta-Puebla de Fuenterrabía esa entidad local esté dentro del actual término de Irún.

Por otra parte todos conocemos la doble dominación que recibía la Universidad de Irún-Urantzú (luego villa y hoy ciudad). Hemos de volver una vez más a Don Serapio Múgica quien establece que esta doble denominación parece indicar que hubo dos territorios o términos diferentes que después se unieron. Irún estaba situada en la actual parte vieja donde estuvo situada la casa-torre de Irún (después Urdanibia) mientras que Urantzú se localizaba en donde se levantaba la casa solar de este nombre (actual barrio del Pinar).

Sólo así quizá entendiéramos la terminología que utiliza la Carta-Puebla de Fuenterrabía: Irún es una colina sobre el agua y Urantzú (antes Lazón) es una elevación de terreno de menor altura rodeada de terrenos pantanosos”.

Zoritxarrez artikulua hau ez dago sinaturik, eta ez zaigu iturririk edo bibliografiarik eskaintzen, dena den Serapio Mujika eta Luis Urantzúko aipatzen zaizkigu artikuluan emandako irizpideen egiletzat. Bizpahiru aldiz irakurri dut, eta ezin dut sinistu bertan



Hipotesi hau frogatuz gero, Gillermo Lazonek ez luke zerikusirik izango Lezo herriarekin. (Lander Zurutuzaren marrazkia.)

irakurri dudana. Eta egia balitz? Eta zergatik ez? hor azaltzen digutenak bere logika dauka. Lezon/lazon/lezoi hitzak guztiz zabaldua daude Bidasoa eta Oiarsoko bailaretan, eta uraren sarrera eragozteko egindako ezponda edo penditza adierazteko erabiltzen ditugu. Badirudi hau zela gaskoiek padurak legortzeko zerabilkiten metodoa, eta prozedura honi esker lur eremu handiak lortu zituztela. Gillermo Lazongo horietako gaskoi bat izango zen. Baina irabazitako lur horiei guztiei lazon/lezon/lezoi hitzez deitu izan zitzaieenez, baliteke Gillermori emandako lurak ez izatea gaurko Lezo herrikoak, Irun aldeko beste lazon izeneko horiek baizik. Eta zergatik ez?

Hauxe horrela balitz Gillermo Lazongo ez litzateke Lezo herriaren sortzailea, eta orain arteko lezoar kronika guztiak oker leudeteke. Nik dakidanez Gillermo Lazoni buruz ez dugu bestelako aipamenik ezagutzen, beraz datu gehiago lortu arte ezin izango dugu inolako hipotesirik ontzat eman. Baliteke Gillermo Lazoni jabetasunez emandako lurak Lezokoak ez izatea, Irun aldeko beste lezoi horiek baizik. Dena den, bihar-ko historiagileek izango dute gai honi buruzko azken hitza. Bitartean zain egon edo datu berriak bilatu, besterik ezin dugu egin.

JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN